

LAN BATZORDE IREKIAK

TALDEA	OBRA BATZORDEA		
IRAUPENA	2 ORDU	EGUNA	2016-01-12
GAIA		DEIALDIA	OBRA BATZORDEA

PARTE HARTZAILEAK

Iñaki Etxezarreta	Joxe Ramon Peñagarikano	Mikel Maiora	Iñigo Betegi
Juan Karlos Gorrotxategi	Nikolas Igarzabal	Zuriarrain	Andoni Maiora
Iñaki Oiarbide	Endika Igarzabal	Felix Maiz	Leire maiora
Edorta Atin	Jose txo Atin	Jexux Mari Gorrotxategi	Jabier Aranburu
Iñaki Arratibel	Ibon Elgarresta	Iñaki Maiz	

ERABAKIAK

GAIA	EKINTZAK	ARDURADURA	NOIZKO
FRONTOI AZPI	<ul style="list-style-type: none"> • Abokatu baten esku ipini da informazio guztia eta datorren asteetan jakingo dugu ardura norena den. 117 mila euro inguruko obra izango litzateke. • Udaleku teknikoek ez daukate ardurarik, obra amaierak ematen duten teknikoena izango litzateke. • Bizilagunekin bilera bat egin zen Gabonetan egoera azaltzeko. Eskoileraren kontua atera zen, ea norena den, eta abokatu beraren esku utzi da kasua aztertzeko. 		
AZKARTZARAKO BIDEA	<ul style="list-style-type: none"> • Konponketak eginda daude. Materiala udalak ordaindu du eta lanak auzokoek egin dituzte. 		
EHIZKO HODIA	<ul style="list-style-type: none"> • Eginda daude lanak. 		
IGERIBAR ERROTA	<ul style="list-style-type: none"> • Azkenean obrarekin hasi ziren, baina aurreikusitakoa baina diru gehiago behar da proiektua burutzeko. Errota martxan jarri da aldarparora ura bideratuz, eta momentuz, obra geldituta dago. 		
IRIZAR	<ul style="list-style-type: none"> • Azken batzordean erabakitakoa eraman zen beraiekin egindako bilerara. Bileran beraien eskaintza 4500dik 9400ra igo zuten metro eraikigarriei dagokienez. • Udalak 12000 beharko lukela uste du, proportzioak mantenduz. Irizarrek esan digu onartu ezean eta lehengo planarekin jarraitu, nabe batekin ordainduko diola udalari ordaindu beharrekoa, hau legala da. • Licencia de actividad-arekin lotuta, zein eskumen dauka udalak? • Udalak irizarri 11000-12000 metro inguruko eskaintza egingo dio eta akordio batera iristen saiatu. Hurrengo egunetan egingo da Irizarrekin bilera, gehiegi ez luzatzeko kontua guztion onerako. 		

<p>ARDANTZA ALDERAKO AUZOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Farolek ez dute bate argirik egiten etxe berrietara, farolarik ez balego bezala da bizilagunentzat. • Farola bat proba moduan petril gainera igoko da ea zer moduz geratzen den probatzeko. • Bizilagunekin adostu beharko da obra nola egin. 		
<p>BEHEKO ERROTA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Beste hiru etxe egiteko baimena eman zaio. 8000€ inguruko ingresoa izango da. 		
<p>SASIETA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gbiriari 3000€ko plusa ordaintzea tokatuko zaio 		
<p>BASO PISTETAN OBRETA MATERIALA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Udalera kexak iritsi dira Gabiriako lurretan obra ondakinak baso pistetan modu inkontrolatuan zabaltzen ari direlako hainbat puntutan: Izar Erdi, Amezti eta Muttei. • Kanpoko obra hondakinak herrira ekartzea ezin da onartu, gainera, ez da legala, hondakin kontrolatuak ez badira behintzat. Kexa hauekin frogatuta dago udala jakinarene gainean dagoela, eta beraz, gehiagora joan ezker, Udala ere kaltetuta irtengo litzateke. • Araua hausten duenari expedientea zabalduko zaio. • Norbere etxeko obra txiki baten hondakinen kudeaketa nola egin zailagoa ikusten da. Herri txikietan beti egon izan da ohitura baso pistak konpontzeko erabiltzeko, baina legez, ezin da egin. 		
<p>AUZOLANAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago data zehatzik, baina Mendi Lasterketako antolakuntza taldeak auzolan bat deitzeko asmoa azaldu du. 		

HURRENGO BILERA: martxoak 9, 19:00tan